

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Vitesse.
Elfo Negro.
DDT/In My Heart Empire.
Iraupena: 34'19".
10 euro.

Iraultzaren alderdi pentsatua

BILBOKO TALDEAK ibilbide luzea egin du Elfo Negro izenpean, baina elkarrizketa hau egiterakoan jakinarazi didate disko honen izenburua izango dela hain justu beraien deitura berria: Vitesse. Hardcorearen koordinadatan mugitu izan da boskotea eta aspaldian Euskal Herrian hain presentzia urria duen estilo honi bizitasun handia eman diote, tarteka El Corazón del Sapo gogora ekarriz, ahots melodikoz kanta indartsuak eginez. Biniloan –CDa oparitura-

kaleratu berri duten disko honetan, baina, erraz antzematen da taldea aldatze prozesuan dagoela. Hala, orain nahiago dute stonerretik asko duen punk-rock ilun eta indartsua egitea; eta emaitza, orain ere, borobila da. Hitzei dagokionez, iraultza, aldaketa eta errebeldia kontzeptuei buelta ematen diete. Punkak ez al du, bada, pentsamendua eragiten?

www.myspace.com/elfonegroxxx

Elfo Negro

«M15ari esker jende askok, alderdirik eta sindikaturik gabe, ekintza zuzena ezagutu du»

“Ekintza bukatzen da kamiseten josturen parera”. Iraultza telebistaz emango zutela hainbestetan esan digute, erosteko zain gaude-la?

Erosoena supermerkatuan saltzea litzateke, baina horrek esan nahiko luke kapitalismoak iraultza bereganatu eta garaile bilakatu dela. Hala ere, kapitalismoak erakutsi du errebeldea dena bereganatzeko gaitasuna duela. Horra hor punka, esaterako. Hortaz, Che Guevara edo beste edozein gudariren kamisetak janzteak ez du ezertarako balio, atzean jokaera koherentea ez badago.

M15a ere kontsumo-gai bilakatuko dela uste duzue?

Pasa gara indarrean dagoen legaltasunaren barruko mugimendu erreformatzaile izatetik kalea berrartzera, eta hori oso interesgarria da: adibidez, etxeak hustea saihestea.



Gainera, jende askok, alderdirik eta sindikaturik gabe, lehenengoz asanblarismoa, ekintza zuzena eta elkartasuna ezagutu ditu.

Vitesse esamoldeak garrantzi handia du zuentzat...

Bai. Vitesse Elfo Negro izena ordezkaturiko du. Kanta berak interpretaturiko ditugu, energia eta intensitate berarekin, baina beste izerdi mota batekin. “Vitesse” ideologia,

abiaduraren eta azelerazioaren ideologia, leku guztietan aurki dezakegu; teknikaren garapenari eusten dion argudioa da. Abiadura horrek gure herrietako berezko kultura eta historia ezabatzen ditu, gure idiosinkrasia alegia. Horretan guztian pentsatzeko metafora da Vitesse.

Zuen kantuek Fer Apoak El Corazón del Sapo eta Kuraia taldeetan abesteko erak gogora ekartzen dizkit. Zer eman dizuete talde horiek?

Ahots melodiak oso gustuko ditugu eta Apoaren taldeetan asko zaindu izan dituzte. Gainera, gaztelaniaz abestutako hardcore-punkean ezohikoa da. Aipaturako taldeek erakutsi digute euskaraz zein gaztelera kanta handiak egin daitezkeela; eta El Corazón del Sapok, bereziki, erakutsi zigun abesten duzun horrekin koherentea izatearen beharra. ■